



Ika, ika, ika...

drogetenitturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 166. alea 2009ko martxo

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa.

HELBIDEA:Erdikokale 2, 1.
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com**ERREDAKZIO TALDEA:**Estibalitz González,
Asier Ibaibarraia,
Alazne Aiestaran,
Pello Mugarza,
Justo Azaguirre,
Olatz Gil eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Kaltxango AEK Euskaltea.

LAGUNTZAILEAK:Piedi Eizagirre,
Igone Amesti, Ane Saenz,
Patxi Lopez, Aroia Lejardi
eta Higinia Solozabal.**ARGAZKIAK:**Alazne Aiestaran, Olatz Gil,
Dorleta Vidal, Ermuko Udala
eta Asier Ibaibarraia.**PUBLIZITATEA:**Arantzi Perosanz
(61 0448079).**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Aritz eta Ekaitz Muñoz
eta Jon Arano.**TIRADA:**

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Esamoldeak...

...Higinia Solozabalek batuta

**“Hanka sartuz
ikasi dut nik,
hanka sartzea zen den”**

Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO	4	
Mallabiko nesken pala taldea		
ELKARRIZKETA	5-7	
PAM		
MALLABIAN ZER?	8-9	
Futbito zelaia		
ARGAZKIAK	10-11	
Korrika 2009		
MOTZEAN?	12-21	
Folkez Blai / Garikoitz Lamiano		
ERMUAN ZER?	22-23	
Pausoka Haurtzaindegia		
BOTEPRONTOA	24	
Nor da Rosa Baltar?		
KIROLZALE	25	
Zorion Zamakola		
ANTZINAKOAK	26	
Ermua eta Mallabiko argazkiak		
SALEROSKETAK	27	
Saldu, erosi edo agurtu		
IRITZIA	28	
EGA		
KALEKO INKESTA	29	
Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak		
AGENDA	30	
Apirileko agenda		

**ERMUKO
UDALA****MALLABIKO
UDALA****EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaBizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia**Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak,
Ermuko Udalak eta Mallabiko Udalak diruz
lagundutako aldizkaria**

Mallabiko nesken pala taldea

Nesken pala taldea Mallabiko pilota eskolaren baitan dago. Emakumeentzat kirol aukera eskasa zegoela ikusita, Itxaso Pradera mallabiarrak nesken pala taldea osatzea erabaki zuen. Talde horrek Mallabia eta inguruetako emakumeak animatu nahi ditu parte hartzera.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Ikasturtea hastearekin batera sortu zen taldea, Mallabiko eskolara hurbildu eta neska zein mutilen geureganatzea egin genuen ume gehiago hurbildu zitezten frontoira.

- Zenbat kide zarete?

Momentu honetan, 8 urtetik 12 urtera bitarteko 10 neskek osatzen dute taldea.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Talde honen helburua, neskei herriko kirol taldeko partaide izateko aukera ematea da, Mallabin ez baitago aukera handirik horretarako. Horretaz gain, kirola egitera bultza-

tzea, lagun artean ariketa fisikoa egitea eta neskek ere, frontoia erabili ahal izateko aukera bultzatzea.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Entrenamenduak ostiraletan 16:30etik 18:00etara egiten ditugu, Mallabiko pilotalekuan.

- Urtean, zein txapelketetan hartzen duzue parte?

Eskolarteko nesken pala txapelketan hartze dute parte. Azaroan hasi eta apirilean bukatzen den txapelketa da, hamabostean behin igandetan antolatzen diren topaketetan.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Telefonoz frontoiko telefonora, 943179848 edo e-mail bidez mallabikopilotalekua@hotmail.com. Bestela frontoian izango gaituzue arratsaldeko 16:00etatik, gaueko 22:00ak arte.

- Zerbait gehiago komentatzeko?

Momentu honetan, talde hau maila eskolarreko neskek osatzen dute, baina esan beharra dago adin guztietako neskontzako eskaintza luzatzea dela, eta ariketa fisikoa egitea edo palan jolastea gustuko duen edozein emakume animatzen dugula bertara etorri eta palan jolastera.

Olatz Gil

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA

CERYECERIA
NHEV

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna



PAM musika taldearen azken lana kalean da:

“Gure asmoa gu asebetetzea da”

Ermuko PAM (Puto Amoak Matematiketan) musika taldeak bere azken lana argitaratu berri du. “Heldu... inoiz ez”. Orain arte argitaratu dituzten lau disketatik, kritika onenak jaso ditu. Juanmi Bravo, Iker Saenz de Zaitegi, Carlos Balseiro eta Markos Gimeno osatzen dute taldea. Julio Hageita eta Dantzut dute gehienek jatorri eta 20 urte baino gehiagoko ibilbide luzea daukate guztiek musika munduan. Markos eta Juanmirekin egon da Drogeteniturri.

eIkarritzketo

- Zein berrikuntza dakar azken lan honek?

Ez dugu uste berrikuntza asko dakartzanik. Guk ez ditugu lanak helburu jakin batekin egiten. Bilduma bat osatuta daukagunean, diskoa ateratzeko ordua dela sumatzen dugu. Gu ez gara profesionalak, ez gara musika eginez bizi baina badaukagu diziplina bat lana egiteko. Azken bilduma honek gure esku artean azkenaldian izan ditugun kezak eta joerak batzen ditu.

- Abestietako hitzak ere zuenak dira. Zeri abesten diozue?

Iker, Markos eta Carlosenak dira ia letra guztiak. Bakoi-tza mundu bat da. Sarritan dituzun kezak eta bizipenak dira sorburu. Bada Irati Jimenezen letra bat ere. 'Berria' egunkarian egin zuen artikululu bat du oinarri euskararen unibertsoaz dihardu, euskara bizitzako esparru guztietara hedatu beharra dagoela aldarrikatzen duena.

- Zein musikatik elikatzen zarete?

Bakoi-tzak bere gustuak dituen arren, gu klasiko samar-rak gara. The Clash, The Who, Punk mugimendua, horixe du batik bat oinarri gure musikak. Melodikoa ez den musika tradizionala dela esango genuke.

- Zein adin tarte daukate zuen zaleek?



Jende gaztea da, gure adin tartea dute gehienek.

- Laugarren diska da jada...

Momentuz oso kritika onak jaso ditugu eta pozik gaude. PAM taldeak heldutasuna lortu duela esaten digute bai musikalki eta bai musika munduan daramatzagun urteen poderioz. Taldean ere oso giro ona daukagu eta hori aurrera jarraitzeko dugun oinarrietako bat dela uste dugu. Bakoi-tzak argi dauka zer nahi duen eta zein den bere egitekoa taldearen barruan.

- Diskaren ekoizpena ere zuek egin duzue...

Aurreko diskoekin bezalaxe, guk egin dugu ekoizpen osoa. Carlos arduratu da grabaketa lanak eta masterra egiteaz, Juanmik kanpo harremanak eta marketing-a landu ditu, Markosek diska-ren maketazioa eta irudiak eta Ikerrek alor musikalaren ardura izan du. Ezin dugu ahaztu Raul Bogajo argazkilaria, diskoaren argazkiak bereak bait dira.

- Zenbat diska kaleratu dituzue?

Guztira 500 disko ekoiztu ditugu. Horietatik 300 salmentara bideratu ditugu eta haiei esker ekoizpeneko gastuei aurre egingo diegu. Gainontzekoak komunikabide ezberdinetara bidali ditugu promozio lanak bideratzeko.

- Ermuan zenbat diska saltzeko asmoa duzue?

Ermuan eta inguruko he-

rrietan 150 inguru saltzen ditugu. Horrez gain, jakinarazi nahi genuke gure webgunean, www.putoamokmatematiket.net helbidean, diska guztietako lanak eskuragarri daudela debalde jaitsi eta eskuratzeko.

- Diskaren aurkezpena egin duzue?

Urtarrilaren 10ean izan zen, Mallabian orain dela gutxira arte izan dugun lokalean. Lokalari agur esateko eta disko berriaren aurkezpena egiteko baliatu genuen. Lagunarteko giroan, kontzertuetara etortzen diren lagunak eta Eibar, Plaentxi eta Elgoibarko kideak bildu genituen. Guztira 70 lagun inguru bildu ginen eta oso jaialdi beroa eta polita izan zen.

- Orain lokal berria eskuratu duzue...

Urte askotan zehar Mallabian bildu izan gara eta alo-

"Bilduma honek azkenaldian izan ditugun kezak eta joerak batzen ditu"

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goenkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

kairua ordaindu izan dugu. Aspalditik bagenuen gogoarekin lokala izateko, lokal txukunagoa eta gozoagoa izateko. Zortedunak izaki, Eibar-ko Legarre auzoan aurkitu dugu lokal berria. Eibarko 'Kokein' taldearekin partekatuko dugu aurrerantzean.

- Kontzertuei dagokionez, zelan zabilzate?

Urtean ez ditugu dozena bat baino kontzertu gehiago egiten. Azken urteotan gauzak nabarmen aldatu dira. Aukera asko dago musikaz gain eta gainera musika munduan gabiltzan taldeak ere asko gara. Egia esan, gure asmoa ez da kontzertu asko egitea. Ez dugu lan komertzial asko egin izan. Baditugu hala ere, gu ezagutu eta ia urtero deitzen gaituztenak. Egiten ditugun kontzertuetan hori bai, baldintza egoki eta duintasun minimo batzuk betetzea eskatzen dugu. Gu ez gara diruagatik ari honetan, baina gutxienez baldintza batzuk eskatzen ditugu goazen tokietan gustura aritzeko.

- Zein da urrutien joan behar izan duzuen herria?

Baionan ere arituak gara eta Nafarroako Lodosan ere izan ginen. Gehienetan inguruko herrietan izaten gara.

- 'Puto Amoak Matematiketan' izenak oraindik ematen dizue zeresanik?

Jendeari izenak harridura eta jakin-mina batik bat hasieran sortu ziola uste dugu. Horrez gain, Markosek palindromo munduan izan duen garapenak ere lagundu digu abestietan matematikarekin jolastu eta matematika mun-

duko terminologia erabiltzeko eta horrek guztiak matematikarekin daukagun lotura areagotzea ekarri du.

- Izan duzuen anekdota xelebrik?

Gasteizen egin genuen kontzertu batean, matematikako bi irakasle hurbildu zitzaizkigun jakin-minez eta gure disko bat ere eskatu ziguten. Beste behin, Markosi Madrileko matematika irakasle batek, matematikako terminoak erabiltzen zituen gure abesti bat entzun eta jakin-mina zuela agertarazi eta beraien ikasleei jartzeko disko bat eskatu zigun.

- Zein da Ermuan musikariaren egoera?

Ermuak betidanik izan du musikarako grina eta gogoia. Talde eta gazte asko ari dira

musika munduan. Esate baterako Eibarko lokal gehienetan ari direnak, Ermuko taldeak dira. Talde hauek askok ez du kontzertuak emateko asmorik, beraiek asebetetzeko elkartzeko dira eta entseatzen dute. Horiengandik gu gauza batean ezberdintzen gara, kontzertuak ematen ditugula. Izan ere, gure asmoa gu asebetetzea da eta inguruko lagunak ere asetzen badira hobeto. Hemendik epe laburrera, Beti Ondon Ermuko musika talde-

entzako lokalak jarriko omen dituzte. Ikusi egin beharko da.

- Aurrera begira zein asmo duzue?

Jarraitzeko ilusioa eta indarra ez zaizkigu falta. Zuzeneko emankizun indartsu bat prestatzen gabiltza. Egindako lau diskoak laburbiltzen dituen zuzeneko. Aurtengo Santixauetan kontzertua emango dugu uztailearen 23an eta baditugu erdi hitzartuak beste 5-6 kontzertu ere.

Asier Ibaibarriaga

P.A.M.

Partaideak:

Carlos Balseiro (gitarra)
Juanmi Bravo (bateria)
Markos Gimeno (baxua)
Iker Saenz de Zaitegi (gitarra)

Diskoak:

- "Puto Amoak Matematiketan" (2002)
- "The Killin Washin Machine" (2004)
- "Ixa" (2006)
- "Heldu... inoiz ez" (2009)



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Futbito zelaixe estaldu eingo da

Martxoan hasi dira futbito zelaixe estaltzeko biherrak. 363.000 euroko aurrekontue dauke eta Artzamendi S.A. enpresiek hartu dau egiteko ardurie.

Iaz, uda inguruen eskoletako frontoiak egin ziren biherrekin (aldagelak barrizatu, frontoie eta eskola banandu, holan frontoie eskola orduetatik kanpo erabili ahal izateko) eta aurtengo otsailean gimnasia eta beste kirol ekintzak udal-pilotalekuan egiteko zabalduak aukerarekin, Udalak Mallabixen kirola praktikatzeko aukerak biderkatu nahi izan ditu, edo hori izan da behintzat, bere asmoa.

Uda balno lehen

Futbito zelaixe estaldute, partidu ofizialak bertan jokatu ahal izatea da helburua (gogoratu behar da gaur egun futbito taldiek Zaldibarren jokatzeko dituela bere partiduek). Saskibaloiko kaxxie be bertan kokatuko da eta ikasleiek estaldutako patioa eukiko dabe.

Biherrak uda baino lehen amaitzeko asmoa dago. Orain instalaziño honeen erabiltzaileei be arduratsu jokatzeko eskatzen jakue: aukera hau ez galtzeko eta kontuan eukitzeko zer esfortzu ekonomiko dakarren honek gure herriarentzat.



ANDIÑO ETA AREITIKO BIDEEN KONPONKETA

Makina bat denbora daroie Andiñoako auzolagunek kezkatute euren etxeetara doan bidearen egoera dala eta. Iaz agindutako moduen, oraintxe burutuko dira hobetze lanak. Apirilean hasteko asmoa daukie eta BYCO enpresa arduratuko da lanok egiteaz. 80.000 euroko aurrekontua daukie.

Areitioko bidie konpontzeko biherrak be laster hasiko dira, 125.000?ko aurrekontua dauke eta PROVISA enpresak egingo dau.

HOBBY SPORT
HOBBY SPORT
HOBBY SPORT
Kirola - moda
48260 Ermua
Probaleku, 8
Tel. Fax: (943) 17 09 13

MUGA


KIROLAK
San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

I AKADEMIA
E ERMUA INFORMATIKA
TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA
Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 90 38

IZOTZ
KONJELATUAK

Ermuko Merkatua.
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98


FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

9431 72665 ERMUA

Zubiaurre 20
*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

ABERRI EGUNA

Datorren asteko martxoaren 26ko plenuen (arratsaldeko 7etan), Aberri Egunaren inguruko moziñue aukeztuko da. Moziño horren bitartez, Mallabiko Udalak herritar guztiak animatzen ditu egun horretan antolatuko diren ekitaldi ezberdinetan parte hartzea eta etxeko leihoetan ikurrina jartzera.

“Burujabetzaren aldeko estrategia nazionala bultzatzeko eta konpromisue aldarrikatzeko garaia” dala iritzita, “urrats eraginkorrak emotera” bultzatu nahi ditu herritarrak.

Moziñuek honako 4 puntu proposatzen ditu plenoaren onarpena izango dabelakuen:

1. Gatazka politikue era demokratikuen gainditzeko dinamiketan parte hartzie.
2. Alderdikeriak albora itxi eta herri moduen jokatzeko deixe.
3. Espainiar eta frantziar estatuei Euskal Herria ezagutua izateko eskarixe.
4. Irun eta Hendaia bitartien egingo dan ekitaldixen parte hartzeko deixe.

KORRIKA

Apirilaren 4an, zapatua, 9:30ak aldera Korrika etorriko da Mallabira. Hori dala eta hainbat ekitaldi antolatu dira haren inguruan:

Apirilaren 3an:

Korrika Txikia 15:00etan.

Umeentzako tailerrak 16:00etan, plazan.

“Zorionak zuri.” ikuskizuna 17:00etan, plazan, Zirika Zirkus taldearen eskutik.

Apirilaren 4an BADATOR KORRIKA

11:30ean futbolarekin lotutako jokoak, eskolako frontoian.

17:00etan umeentzako zinea, Kultur Etxean.

18:00etatik 21:00etara dantza ikastaroa, Patxi Perez dantzariaren eskutik, plazan.

21:34an KORRIKA. Korrika pasatu eta gero afari autogestionatua.

Ondoren dantzaldi txiki bat Patxi Perez dantzariaren eskutik.

MALLABIKO ERMITAK

Iazko urtien, Orraitio euskara elkartiek antolatute, auzoz-auzo, ermitaz-ermitako ibilbidie egin zan. Urteera horretan ermita erdiak bisitatu ziren eta, bide batez, ermitei buruzko historia pixkat be ikasi genduen, Justo Azagirrek emondako argibidiei esker. Aurtengo irailien iaz ikusi barik itxitako ermitetatik ibiliko gara.

Beharbada gehiagok be interesa euki leikiela eritzita, ermita honei buruzko argibidiek zabaltzie erabaki dogu. Ale honetan ermita biri buruzkuek eta hurrenguetan bestiek.

1.SANTA KATALIÑA

Abendibar, Donatz, Donagarai, Abendibar Etxebarri eta Goita auzoko baserri inguruen kokatute dago. Barroko garaikoa da.

Plano errektangularrekue da. Iparraldera aterpetxo dauke. Hormarriz egindako hormak eta harlanduzko ertzak ditu. Kanpandorriek ez dauke eta ure alde bietara bialtzen daben teillatua dauke. Teillatuko ateburutik zintzilikatute dago kanpaie. Atiek ateburue dauke, hegoaldien gezi-leiho bat eta zorue harlosaz hornitute. Bertan agertzen dan imajiña bakarra Santa Kataliñarena da. Egoera kaxkarrien daguela esan biher. Azaruan 25ien ospatzen zan bertako egune, baiña hori aspaldiko kontue da.

Mallabiko Andra Mari elizatik errogatibak egiten ziren bertara Asentzio aurreko hiru egunetatik baten.

2.ARTETAKO SAN JUAN

San Juan Ante Portam Latinam da santuaren izena. Arandoño auzuen kokatute dago, mendi magalien, piñuz inguratute. Gotiko-Errenazimendu garaikue da. Ermitaren planue errektangularra da. Gaur egun jausitte dago, baiña hango horma senduek ikusitte, emoten dau sasoi baten edarra izan zala. Horma dotorez egindako aurrekaldie eta hegoaldie eukezan eta hiru aldetara begiratzen eban teillatue. Atie erdi puntukue, gezi-leiho bat hegoaldien.

Santuan imajiñie auzokuek euren etxietan, txandaka, gordetzen dabe. Uztailaren 31n izaten da bertako jaixe, San Inazio egunez. Orain dala 20 urte arte ermita honetan bigarren Pazko Erdia (Pentekostes astelehena) ospatzen zan.

Justo Azagire eta Pello Mugarza



ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**



URRETA burdindenda

✕ <i>Etxea</i>	✕ <i>Giltzak</i>
✕ <i>Tresneria</i>	✕ <i>Zerrailgintza</i>
✕ <i>Brikolaia</i>	✕ <i>Kit altzariak</i>
✕ <i>Rielak</i>	

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Korrika 2009



OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen duzu

Infreñu Taberna

Kardena Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com





Apirilak, 4

21:30ean - Mallabia

22:04an - Ermua

Harategia



M. LAZKANO


BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
 ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
 Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA
J. CASADO



Lenteak
 Audifonoak
 Graduatutako Antiajuak
 Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
 Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL
Harategia




TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
 ☎ 17 05 63

ERMUA
 (Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

TXINDURRI EGUNA

Apirilaren 4an eta 5ean Txindurri eguna ospatuko da Orbe Kardinalaren plazan. Ekitaldiak apirilaren 4an hasiko dira 18:30ean Jainaga eta Narbaizak eskainiko duten dantzaldiarekin. Jarraian, 20:00etan Larraindantza saioa izango da. Igandean, apirilaren 5ean, goizean taldea kalerik kale ibiliko da eta eguerdiko 12:30ean dantza erakusketa egingo du taldeak plazan.

APIRILEKO IKASTAROA KZGUNEAN

Internet E-administrazio ikastaroa, Osasun txartel elektronikoa ezagutu, Posta elektronikoa eta Enplegu bat lortu ikastaroak antolatu ditu Ermuko KZ-guneak apirilera-ko. Informazioa gehiago eta ordutegiak kontsultatzeko, www.kzgunea.net helbidean begiratuta lor daiteke. Halaber, 943 17 19 19 telefonora deituta edo Goienkale 4-2. solairura (Udal liburute-giko eraikinean) joanda.

ARTARRAIKO IRTEERAK

Artarrai Mendi Taldeak hilero antolatzen ditu irteera ezberdinak. Martxoaren 28an Zarautz-Donostia zeharkaldia egingo da. Apirilean irteera bakarra izango da, apirilaren 25ean Pagasarri-Ganekorta ibilbidea. Informazio gehiago <http://artarrai.blogspot.com>

PIROPO LEHIAKETA

Euskara Sailak antolatutako II piropro lehiaketan Ainara Arrizabalagak lortu du 1. saria. Txikien kategorian, berriz, Alba Serodiaren piroproa aukeratu du epaimahaiak.

Hauteskundeen emaitzak Ermua eta Mallabian

Martxoaren 1eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, Ermuan PSE-EE izan zen garai-le 3888 botorekin. PP-k 1742 bozka lortu zituen, EAJ-k 1715, EB-ak 366, Aralarrek 340, UPD-k 155 eta EA-k 106. Boto baliogabeak 275 izan ziren eta zuriak 72. Abstentzioa %33,88koa. Guztira 8805 lagun joan ziren hauteskontzietara. Mallabian, ordea, EAJ alderdia izan da irabazlea 271 bozekin. PSE-EE-k 96 boto izan zituen, Aralarrek 37, PP-k 27, EA-k 17, EB-k 8 eta UPD-k 2. Boto baliogabeak 178 izan ziren eta zuriak 2. Abstentzioa %35,12koa izan zen eta boto emaileak guztira 641 lagun izan ziren.

Folkez Blai musika lehiaketaren IV. Edizioa

Folkez Blai lehiaketara grabazioak aurkezteko epea, 2009ko martxoaren 1etik maiatzaren 15era bitartekoa da aurten. Lehiaketako taldeek lau abesti jasotzen dituen grabazioa (maketa, binilo edo Cdan) bidali beharko dute. Aurkezten diren abestietatik gutxienez bi propioak izan beharko dira. Abestiekin batera taldearen historiala eta harremanetarako helbidea eta telefonoa adieraziko dira. Materiala Ermuko Udaleko Kultura Sailera bidaliko da: Valdespinako Markesa kalea, 1. 48260. Ermua (Bizkaia). Gutunazalean 'Folkez blai', Folk taldeen IV. Lehiaketa idatziz. Epaimahaiak aukeratu dituzte 6 talde bigarren fasea pasatzeko eta horiek irailaren 11, 12 eta 13an Orbe Kardinalaren plazan zuzenean joko dute. Bigarren fasea noiz izango den epaimahaiak erabakiko du. Aurten bi sari banatu dira, irabazleek 3000 euro jasoko dituzte eta bigarren sailkatzen den taldeak 1500 euro. Sailkatu, baina saririk jaso ez duten taldeek 400 euro jasoko dituzte.

**Kaltxangoko etxe bat erori da**

Kaltxangoko etxe baten teilatua behera erori zen pasa den martxoaren 13an. Bertan bizi ziren familiak onik atera ziren eta gizartekintza zerbitzuek beste etxebizitza eta ostatu batzuetara eraman zituzten, udal iturriek adierazi zuten. Eraikinean bizi ziren familiek zarata araroak sumatu eta berehala deitu zuten Udaleko alor teknikora. Hirigintzako teknikari talde batek etxea ikuskatu ondoren, egoera arriskutsuan zegoela eta, etxea hustea erabaki zuten. Suhiltzaileak, Ertzaintza eta Udaltzaingoa lanean aritu ziren bertan, izan ere, 634 errepeidea itxita egon zen ordu batzuetan eta trafikoa Zeharkaletik desbideratu zen. Udal teknikarien azterketa sakona egin ondoren, erabakiko da zer egingo den eraikinarekin.



www.joyeriasenen.com



Oinetakoak

SEXTO CENTENARIO, 17
48260 ERMUA Bizkaia

(943) 17 13 44

Garikoitz Lamiano ermuarra ipuin lehiaketan irabazle



Garikoitz Lamiano Elgeta 8 urteko ermuarra izan zen aurtengo aitona-amona eta biloben arteko lehiaketaren lehenengo irabazlea. Eskolabarriko ikasle honek 'La Gran Serpiente de Fuego' ipuinarekin lortu zuen saria eta horretarako, Sesi eta Visi amamak izan zituen laguntzaile. Pasa den martxoaren 23an jaso zuen saria Garikoitz Lamianok bere guraso eta amama Visirekin batera Eskolabari ikastetxean. Lehiaketa Debegesak antolatzen du eta aurtengoa bigarren edizioa izan da. Garikoitzek saria beste pertsona

batekin disfrutatzeko aukera izango du eta Flyscharen Ibilbide osoa egiteko bi sarrera jaso zituen. Itsasoz eta oinez egin daitekeen 4 orduko ibilbide oso baten bidez, itsasertz honetan dauden elementu berezi guztiak ezagutzeko aukera izango dute. Mutrikuko flysch beltzak, Debako itsaslabarrak eta Zumaiaiko geruza bikainak besteak beste. Halaber, Mutrikuko Nautilus ikasgunea eta Zumaiaiko Algorri ezagutza etxea bisitatzeko beta izango dute.

Literatura lehiaketa abian da

Ermuko Udalak, apirilaren hasieran, "Ermua Hiria" XV. Literatura lehiaketa martxan jarriko du Udal liburutegiaren bitartez. Aurten lehiaketaren baitan, Ermuko idazleei zuzenduriko modalitate berria izango da, udal liburutegia Teresa Murgako eraikinera aldatu zela 10 urte bete direlako. Bertan, 1993 eta 2001 urteen artean jaio diren idazle ermuar guztiak euren lanak aurkeztu ditzakete. Lortu ahal duten saria 100 eurokoa izango da, eskola materialean edo dirutan. Ohi bezala, olerkia eta narratiba motza modalitateak izango dira lehiaketan euskaraz zein gazteleraz. Lanak maiatzaren 8ra arte aurkeztu ahal izango dira bertan. Narratiba ataleko eta olerki ataleko saria 400 eurokoa izango da. Bertan, 1993. urtean edo lehenago jaiotako idazleek har dezakete parte.

Aldaketak egingo dira udan igerileku handian

Udal kiroldegiko igerileku handiaren sakonera gutxitzeko lanak uztaila eta iraila bitartean egingo dira, zortzi astetan. Igerileku handiaren luzera eta zabalera ez dira aldatuko, baina lanen bitartez sakonera gutxien izango duen gunea 1,2 metrokoa izango da eta gehien 1,6koa (egun 2,20 ditu). Sakonera gutxituz, igerileku handiak erabilera gehiago izango ditu, besteak beste, "aqua-gym" edo "aqua-jazz" egiteko erabili ahal izango dira. Bide batez, arazketa sistema eta iragazkia berritu egingo dira eta ura mugitzeko bonbak ere aldatuko dira. Lanen bitartez, hiru helburu lortuko dira. Alde batetik instalazioa iragazkortuko da. Bestalde, erabilera kolektiborako igerilekuen arautegira egokituko da eta ur kontsumoa eta energia gastua gutxitu egingo dira. Obraren kostua 228.000 eurokoa da eta Administrazio Publikoko Ministerioak udalei emandako inbertsio lokaletarako diruarekin egingo da.

GORABIDE BOLUNTARIOEN BILA

Ermuko Gorabide adimenezintasuna duten pertsonen aldeko elkarteak boluntariok behar ditu, ezintasun psikikoa duten pertsonen aisialdiko ekintzetan parte hartzen laguntzeko eta saio horiek dinamizatzen. Ezinbestekoa da adinez nagusi izatea eta lan boluntario egiteko gogoia edukitzea. Gaur egun, astean 3 egunetan egiten dira aisialdiko ekintzak, baina boluntarioek ez dute derrigorrez 3 egunean jardun behar. Informaziorako eta harremanetarako, 944431210 telefonora deitu edo www.gorabide.com helbidean begiratu.

BERBALAGUN IKASTAROA

Makillaje ikastaroa egiteko aukera egongo da apirilaren 15, 22 eta 29an Berbalagun egitasmoaren baitan. Egutero Lobiano Kultur Gunean 19:00etan eta doan. Izena emateko, 639414205 telefonora deitu, mezua bidali izena aipatuz edo euskaltegietatik pasatu. Ikastaroetan 15 lagun baino gehiagok ezin izango du izena eman.

NEGUKO LIBURUAREN IRABAZLEAK

Jose Luis de Marcos, Raquel Bolibar, Lydia Gonzalez eta Imanol Bello izan dira aurtengo 'Neguko liburua' lehiaketan saritutakoak. Ekimen honen bidez liburutegiak irakurleen zaletasunak ezagutzeko aukera du eta bide batez, irakurzaletasuna sustatzen du horien artean. Lehiaketara 71 lagun aurkeztu dira eta horietatik 22, 14 urtera bitarteko gaztetxoak izan dira.

QUETZAL
gazte denda
Baietz topatu gustuko zeozer?
Goienkale 9
943 17 00 65

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42


URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA


CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Taldeentzako entseguetarako lokalak prest egongo dira irailean

Ongarai auzoan kokatuko dira musika taldeentzat Udalak erakitzen diharduen entseguetarako lokalak. Guztira 400m² izango dituzte lokalek, 6 gela egongo dira eta irailerako lanak bukatuta egotea espero da.



Udaren bueltan egongo dira prest herriko musika taldeen entseguetarako lokalak, Udalaren aurreikuspenen arabera. Obrak otsailean hasi ziren eta 6 hilabete eta 3 aste epea dute bukatzeko. Beraz, iraila edo urrirako asko jota lokalak martxan egon beharko lirakeke.

Entseguetarako lokalak Zeramika Eskola zegoen lekuan kokatuko dira, futbol zelai berriaren azpian, eta proiektua aurrera eramate-

ko eta taldeen beharretara benetan egokitu ahal izateko, taldeekin elkarlanean aritu da Udala.

Eraikin berriak bi bloke izango ditu eta bata bestearen atzeko aldean kokatuko da. Honek itxaron gela txikia izango du eta intsonorizatu-tako 6 gela. Hauek, 18 talderi zerbitzua eskaini ahal izango die txandaka, nahiz eta herrian 10 edo 12 talde inguru dauden, Udalaren arabera. Proiektuaren aurre-



kontua 551.000 eurokoa da.

Behin eraikita, taldeak izango dira lokalen kudeaketaren arduradun zuzenak eta horretarako inguruko herrietan dauden lokalen kudeaketa mota kontuan izango dute.

Egun, musika talde batzuk Eibarko Legarreko lokaletara joan behar izaten dute entseguak egiteko eta Udalak euren alokairua ordaintzen

du. Proiektu honen bidez, berriz, herrian geratu ahal izango dira.

Ongarai auzoko inguru hauetan, gazteentzako gunea sortu nahi da, bai aisialdi zein kirolerarako. Horretarako Betiondoko kirol instalazioei eta futbol zelaiari, skate-parka gehitu zitzaion eta orain, entseguetarako lokalak. Eraikin berri honen gainean plaza txikia egingo da.

"MENDIOLA"

Jatetxea


Erdikokale, 19
Tfno. (943) 17 22 43
ERMUA (Bizkaia)

EGUNEKO
MENUA
ETA KARTA
ERARA

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com



PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
 - motorizazioa
 - pertsiana dekoratiboak
 - pertsiana bilgarriak
 - segurtasun pertsianak
 - moskiterak
 - toldoak
- Erakusketa berria:
Karabixa, 1
943 17 98 60

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41



ZUBIAURRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxa. 943 17 42 17
48260 ERMUA

Nagore Carabantes, Pausoka haurtzaindegia: “Zerbait ezberdina eskaini nahi dugu”

Nagore Carabantes eibartarrak Pausoka haurtzaindegia zabaldu zuen martxoaren hasieran, Ermuko Eskolabarriko antzinako lokaletan. Ikasturte erdian egon arren, pozik dago jasotako harrerarekin.

Orain dela bost urte, ‘Pintxo’ haurtzaindegia zabaldu zuen Nagore Carabantesek Eibarren lagun batekin, 23 urte zituela. Hango esperientzia ikusita, eta Ermuan haur-eskola bakarrik zegoela kontutan hartuta, “*idea ona iruditu zitzaidan hemen ere haurtzaindegia zabaltzea*”, dio.

Bertan 0 eta 6 urte bitarteko umeak hartuko ditu, euren adinei egokitutako 3 gela ezberdinetan eta horretarako 400m² baino gehiago ditu Iparragirreko lokaletan.

“*Oso ordutegi malgua dugu -dio Nagorek-. Haurtzaindegia 7:15etik 20:00ak arte zabalik dago eta ez dago sartzeko edo irteteko ordutegirik, gurasoek behar dutenean ekar ditzakete umeak, euren beharren arabera*”.

Momentuz, bera bakarrik dago lanean, nahiz eta aurrerantzean langileak kontratatzea ezinbestekoa izango duen. “*Hamabost umek eman dute izena, baina bostekin bakarrik nago orain-*

dik, gainontzekoak irailean hasiko dira. Ikasturte erdian gaudenez, ez da erraza umeak ekartzea -dio-. Orain hasita, aukera dugu jendeak gu ezaqutzeko, hitz egin dezakete, gustura nago, ez nago... bestela, irailean bat-batean ezaqutzera ematea


zailagoa litzateke”. Hala eta guztiz ere, zerbitzu “*oso erakargarriak*” eskaintzen ditu. Umeak haurtzaindegitik eskolara edo etxera eta handik haurtzaindegira eramateko aukera ematen dute eta zerbitzu honek 70 euroko prezio du.

“*Honetarako, adibidez, ezinbestekoa da oso ondo antolatzea eta jendea lanean izatea, baino astiro-astiro hasi garenez, denbora daukat pentsatzeko. Eibarraren, esaterako, arrakasta handia du zerbitzu honek*”. Hilabete osorako kontratatu nahi ez bada, txandaka lan

egiten dutenek, esaterako, 15 egunerako zerbitzua ere kontratatu dezakete (45 euro). Zerbitzu guztiak 15 egunerako eskaintzen dira, “*horrela gurasoen benetako beharretara egokitu gaitzek*”. Umeak 3, 6 edo 8 ordu lagatzeko aukera dago (130, 160 edo 210 euro, hilabete osoa; 70, 85 edo 110 euro, bi asterako kontratuz gero). Honez gain, ordu libreak har daitezke (6 euro).

Oporretan, berriz, jai egunetan bakarrik egongo da itxita Pausoka, gainontzeko egunetan zabalik egongo da.

Dorleta Vidal



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA


Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Nicolas Unamuno Bergaretxe

Martxoaren 6an hil zen, 68 urte zituela

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu haren senide eta lagunei.



Euskal Birusa

R O S A B A L T A R

- Zelan definituko zenuke emakumeen egungo egoera bi hitzetan?

Gazi-gozoa (bi hitz dira??). Berdintasun kotak irabazten diren heinean, emakumeen kontrako indarkeria areagotu egiten da. Emakumeen presentzia arlo publikoan nabaria da bai lan merkatuan eta baita beste gune publikoetan ere, baina gizonen inplikazioa etxeko beharretan eta zaintza lanean, ez dira aldi berean eman. Gainera, oraindik ez da betetzen feminismoaren aspaldiko esaldi hori: "lan bera, soldata bera", eta abar luzea...

- Zenbat urterekin sentitu zenuen zerbait egin behar zela hau aldatzeko?

Ez dut gogoratzen, dakidana da zerbait mugitzen zela neure buruan, izatez dagoeneko 15 urte baino gehiago daramatzat mugimendu feministan.

- Eboluziorik egon da urte hauetan?

Gauzak astiro aldatzen doaz, kontuan hartu behar da mentalitateak aldatzea gatza dela oso eta prozesu luzea dela. Halere, feminismoaren urteetako borroka ez da alferrik pasa!

- Nushuren sorreran ere egon zinen...

Bai, oso garai polita izan zen. 'Ermuko emakume gazteok' taldekoak ginen. Geroago 'Nushu' izena eman genion gure taldea-



Emakumeen eskubideen aldeko borrokan orain dela urte asko hasi zen lanean 33 urteko ermuar hau. Nushu neska taldearen sorreran parte hartu zuen. Orain, Berdintasun Saileko teknikaria da, Ondarroako Udaletxean.

ri. Ermua beti izan da erreferente bat mugimendu feministan eta garai horretan talde dezente elkartzan ginen herrian...

- Feminismoa modan dago?

Feminismoa ez da moda bat. Feminismoak bide luzea egin du eta gaur egun hobeto bizi gara batzuk feministen borrokari esker. Azken mendeko mugimendu garrantzitsuna izan dela esatera ausartuko nintzateke.

- Egunkarietan irakurri nahiko zenukeena?

Erantzun erraza: Indarkeria matxista desa-

gertu dela.

- Ondarroara bidean zer egiten duzu?

Lo egitea oso gustukoa dudanez, beti ibiltzen naiz berandu lanera joateko; zorionez nire kotxe txikiak buruz daki bidea... eta kotxean sartu orduko irratia jartzen dut berriak entzuteko. Musika entzuten itzultzen naiz.

- Irakurri duzun azken liburua?

Gauza gehiegi ditut irakurtzeko. Oraintxe bertan, nire ohe alboan 'Hablemos de Dios' Amelia Valcarcel eta Victoria

Camps feministen arteko eztabaida daukat.

- Abesti bat?

"Si los obispos parieran el aborto sacramento..." Orain dela gutxi abestu dut eta...

- Euskaldun berria zara, lanerako behar izan duzu euskara?

Bai, beti behar izan dut. Eta gaur egun ondarrueraz jakitea be!..

- Zerk kentzen dizu loa?

Zurrungek...

- Miresten duzun pertsona bat?

Nire ama.

- Nora egingo zenuke bidaia?

Mexikon izan diren 'Amerika latina eta Karibeko Topaketa feministetara'.

- Eta bisitatu dituzun lekuetatik, zein gustukoen?

Argentina. Oso oroitzapen onak ditut bidaia horrenak, 3 hilabete egon nintzen bertako unibertsitate batean... gutxi ikasi nuen, baina herriaren punta batetik bestera ibili nintzen.

- Nahi, baina egiten ez duzun hori?

Urtebete ematea bidaia-tzen.

- Korrikari parte hartuko duzu?

Aurten, agian Ondarroan. Kasualitatez, Ermutik pasatzen den egunean bertan, ezinbestekoa dudan beste konpromiso bat daukat.

Dorleta Vidal



SANATANA DHARMA
YOGA ELKARTEA

San Roke, 24-behea

Informazioa: 943 74 85 93 edo

685 72 21 31 (Idoia)



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Alex Soto:

“Inoiz baino hobeto nago”

Alex Sotoren azken lorpena izan da martxoan Espainiako promesa txapelketa irabaztea (2'18m.). Nahiz eta futboleant hasi, 14 urterekin Espainiako altuera jauziko txapelketa irabazi eta errekorra lortu zuen, 2'04m. jauzi ondoren. Hala ere, bere ibilbidea ez da erraza izan, 1'94m.ko altura duen 20 urteko gazteak, gora-beherak izan baititu bere karreraren.

- Nola laburbilduko zenituzke zure karreraren azken urteak eta emaitzak?

Bada, 18 urterekin, ezin hobeto nengoenean, estres-haustea egin nuen orkatilan. 19 urterekin urte sabatikoa izan nuela esan daiteke, entrenatzen nuelako baina ezin nuelako saltorik egin, fisikoki gaizki nengoelako. Lesioaren ostean apurka-apurka entrenatzen hasi nintzen, baina egia esanda ez nuen pentsatuta probarik prestatzea ezta emaitza oso onak lortzea ere. Hala eta guztiz ere, martxoaren hasieran, 2'18m.ko jauzia egin nuen Donostian ospatutako Espainiako pista estatitako txapelketan eta txapeldun izan nintzen.

- Egutegia prestatu duzu estalperik gabeko txapelketetan parte hartzeko?

Bai, ekainean Espainiako promesa txapelketan (23 ur-

terekin) parte hartuko dut. Uztailean, Europako promesa txapelketa egingo dut eta abuztuan, Espainiako txapelketa absolutuan parte hartuko dut.

- Aukerarik izango duzu?


Ez dakit, baina itzaropen handiak ditut, aurten inoiz baino hobeto nago. Burua ere oso ondo daukat eta arazorik ez ematea espero dut. Hala ere, nire ahulgunerik handiena neure burua da. Goi-goian egotetik lurrera jausten naiz batzuetan.

- Hori dena lortzeko zenbat entrenatzen duzu?

Astelehenetik larunbatera entrenatzen dugu eta guztira 9 saio egin ditugu, 6 arratsaldez eta 3 goizez eta gainera ikasten ere jarraitzen dut.

- Beste gauza batzuk galtzen ari zarela pentsatu izan duzu inoiz?

Bai, batzuetan pentsatzen



dut: gaztea naiz, gauza asko ditut bizitzeko oraindik... Baina ondo aztertzen badut, zera ikusten dut: Marokon, Lituaniar, Italian, Frantziar, Txinan, Errusiar egoteko aukera izan dudala eta ehunka lagun egin ditudala bertan. Txinako mundialera joan ginenean, adibidez, 14 egun pasa genituen bertan. Nik hirugarren egunean lehiatu behar nuen, eta gainontzekoetan Txina ezagutzeko aukera izan nuen lagunekin. Gainera abuztuan libre izaten dugu, noizbehinka parrandak beharrezkoak direlako.

- Diru-laguntzarik jasotzen duzue?

Bidaiak eta egonaldiak Espainiako Federazioak ordaintzen ditu eta marken arabera ere beka batzuk ematen dira. Euskadin ez dago laguntzarik eta Ermuan ez dago ezer. Hemen Espainiako 8 txapeldun

egon gara, 3 momentu honetan (Javier Villalobos eta Natalia Ourmakaeva). Betiondoko instalazioak egin dizkigute eta ez gara kexatzen, baina hotz handiagoa egiten du barruan kalean baino.

- Euskal Herritik kanpora joatea pentsatu duzu?

Ez, munduko entrenatzaile onena dudalako, Antonio Cid. Bere lana goraiatu nahi dut, batzuetan bere familia alde batera lagatzen duelako gurekin egoteko eta, nahiz eta berarekin eztabaidak izaten ditudan, azkenean aita bezalakoa da eta bere lana asko eskertzen dugu.

- Zer lantzen duzue?

Altuera jauzian indar asko edukitzeak eta jauzi handiak egiteak, ez dute ezertarako balio teknikorik gabe, teknika da garrantzitsua. Zerbait zuzendu behar da beti, eta hori frustrantea izaten da.

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA

URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3

Telefonoa: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGAÑA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Argazki hau 1969ko abuztuaren 15ea aterata dago Mallabiko plazan.

Bertan agertzen dira: Belen Abendibar, Carmen Amutxastegi, M^{re} Asun Aranburu, Rosita Aranburu, Agurtxane Ormaetxea, Ana Maria Txurruka, Pilar Aranburu, M^{re} Nieves Egurrola, Arantxa Mallabiabarrena, Amaia Ortuzar, Miren Bego Idigoras, M^{re} Jesus Astarloa, M^{re} Kontxi Garitagoitia, Maritere Astarloa, M^{re} Isabel Aranburu, Eloi Zelaieta, Joseba Idigoras.

1969
(MALLABIA)



(ERMUA)
1963

Argazki hau 1963. urtean atera zen gutxi gora behera, Santa Ana Auzoan, errege egunean.

Bertan agertzen dira Idoia Goikoetxea, Moises Guridi, Maite Guridi eta amama, Francisca Guridi.

Okerrak zuzentzen...




164. alea. Estazioan ateratako argazkia da, 40. hamarkadan, Berrizera bazkaltzera joan aurretik. Zutik, ezkerretik eskumara: Paulina Barinaga, Maria Ormaetxea, Juana Garate, María Jesús Guisasola, Josepa Azpiri, María 'Txiki', María 'Haundi', María Amallobieta, Leonisa Egiazu, Juli 'Querido' eta Ángela Bildosola. Erdiko hilaran: Felipa Bedarona eta Rosario. Jarrita: Justina Antxia, Juanita Aranburu, Victoria Amillategi, Encarna Agirregomezkorta eta Antonina.

165. alea. Aurreko hileko Drogeteniturrin, Juan Manuel eta Daniel Asumendi agertzen ziren eta guk, erratuta, Azurmendi abizena ipini genien.

SALEROSKETAK

Erabili gabeko mertzeria-ko materiala salgai, denda itxi behar delako: artilea, botoiak, parpailak, kre-mailerak, perleak...
686133325 telefonora deitu.




Apirilak 13
Zorionak Ibai!!
11 urte!! Etxeko eta lagun guztien partez!



Martxoak 30
Zorionak Julene!!
6 urte beteko dituzu!!
Etxeko eta lagun guztien partez.



Martxoak 7
Zorionak Gari!!
Osaben partez.



Apirilak 19
Zorionak Mikel!!
Karmele, Juantxo eta Arkaitzen partez.



Martxoak 29
Zorionak Jone zure 6. urtebetetzean!!!
Etxeko guztien partez.
Muxu handi bat!!



Apirilak 1
Zorionak Ramon etxekoan partez.
Hiru muxu handi!!



Martxoak 31
Zorionak!!
Muxu asko etxekoan partez.




Martxoak 28
Zorionak Maitel!!
Etxeko eta familiaren partez, muxu handi bat.



Apirilak 4
Zorionak Daniel zure lehen urtebetetzean eta muxu handi bat zure osaba-izeben partez eta lehengusu-lehengusinen partez!

Zer edo zer saldu, erosi edo alokatu nahi baduzu, bidali zure iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo 943 17 93 50 telefonora deitu.
Bestalde, norbait zoriondu nahi baldin baduzu, Drogeteniturrin kaleratu ditzakegu zure lagun edo senideen argazkiak eta zorion agurrak.
Bidali helbide berdiner.



Apirilak 3
Zorionak Markel 'Forja'ko lagunaren partez eta muxu bat zure 6. urtebetetzean.



Apirilak 7
Zorionak June zure 7. urtebetetzean!!!
Zure senide guztien partez, musu eta besarkada handi bat.



Apirilak 11
Zorionak Alazne!
Muxu handi bat etxekoan partez!

TALAPARTA
ABERNA

ASTEBURVETAN
BOKATAK, PINTXOAK
ETA AFARIAK

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

DO
Mouth



**Aroia
Lejardi**

IKASLEA

Euskara jakin, edo erabili?

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) pertsona batek euskaraz ahoz zein idatziz aritzeko trebetasuna duela eta euskara batuaren ortografia eta arauak ezagutzen dituela erakusten duen ziurtagiria da.

Berau lortzeko hiru proba edo azterketa gainditu behar dira: atariko proba, azterketa idatzia eta ahozko azterketa, orden horretan. Azterketa batetik bestera pasatzeko, ezinbestekoa da aurrekoa gainditzea, aurrean aipatu atalen batean kale eginez gero, lehenengo frogatik hasiz.

Baina, titulu hau lortzeko bermatzen al du euskararen erabilera? Izan ere gure hizkuntzaren osasuna kolokan dagoela argi dago, baita horren aurrean konponbideak bilatu behar direla ere. Agiri honek ez du euskara ama hizkuntza dutenen eta euskaraz bizi diren euskaldun askoren hizkuntza maila airtortzen. Horregatik uste dut azterketa hau ez dela objektiboa. Azterketa honek euskara batua soilik neurtzen du, gainerako euskalki guztiak alde batera utzita. Hori dela eta, euskaldun zahar askori oso zaila egiten zaie gainditzea. Akaso, ez al dira euskalkiak baliagarriak?


Gainera, guztiok dakigun bezala, gure hizkuntzak eguneroko erabileran du urritasuna; baina, gabezia horre-

tan titulu honek, pizten al du euskaraz aritzeko grina? EGAK unean uneko euskara ezagutza maila neurtzen du soilik, ez erabilera. Ondorioz jendeak atzerriko hizkuntza legez dauka, asko curriculum osatzeko besterik ez dute ateratzen, behin hori lortuta euskararekin duten lotura alde batera utziz. Izan ere, gure gizartean agiri hau behar izana bihurtu da, ez nahia.

Honek ez du esan nahi euskara maila neurtzea gaizki dagoenik, administrazio publikoetako lanetan beharrezkoa dela iruditzen zait EGA titulua izatea, denok baitugu euskaraz adierazteko eskubiak, baina ezer gutxi balio du titulua eskatzeak, harrera gazteleraz egingo bada.

Euskaraz jakin badakigu; orain, erabili dezagun.

**Titulu hau lortzeko
bermatzen al du
euskararen erabilera?**



IKASTOLA
38 urte Ermua
euskalduntzen



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

EGA titulua beharrezkoa ikusten duzu? Azterketak zer iruditzen zaizkizu?

Euskaraz hitz egiteko eta komunikatzeko ez da ezinbestekoa, baina pentsatzen dut lan batzuetarako (administrazioarako) agiria eskatzea zilegia dela, nahiz eta administrazioaren baitan maila ezberdinak dauden. Finean azterketa bat da eta edozein oposaketa, azterketa bezala, prestatzea gogorra dela iruditzen zait.



David Elejalde. 40 urte. Langilea




Aitor Blanco. 21 urte. Ikaslea

Zertarako den hartu behar da kontuan. Hala ere, uste dut hemen lan egiteko gomendatu beharko litzakeela. Uste dut azterketaren zatirik gogorrena, niretzat behintzat ahozkoa litzatekeela, urduriago jarriko nintzateke eta. Hemendik pare bat urtera edo, EGA prestatzeko asmoa daukat.

Ez dut ikusten beharrezkoa denik. Izan ere, ahoz euskaraz ondo moldatzen diren batzuk agian ezin atera dabilta titulua eta horrenbeste erraztasun ez dutenek titulua lortzen dute. Ez da modu justua norbaiten gaitasuna neurtzeko.



Sara Rodriguez. 18 urte. Ikaslea



Fernan Sanchez. 36 urte. Langilea

Lanbide publikoetan aritzeko uste dut ezinbestekoa dela, ez ordea, euskaraz hitz egiteko, gainera hori frogatuta dago. Ni egon izan naiz euskara ikasten, baina ez naiz inoiz maila horretara heldu, beraz zaila da azterketaren inguruko iritzirik ematea.

Uste dut ezetz. Euskaraz betidanik dakiten batzuk eta oso ondo moldatzen direnak ez dute lortzen azterketa gainditzea eta alderantziz. Izan ere, neurri batean zortea ere bada gainditzea edo ez gainditzea. Nik egin ditut klasean azterketak eta idatzizkoa zaila egiten zait, ez bainago ohituta euskaraz idazten.



Marina Leitao. 20 urte. Langilea



Sandra Arias. 18 urte. Ikaslea

Lan jakin batzuetan EGA titulua edo perfil jakin batzuk eskatzea beharrezkoa dela uste dut eta ondo iruditzen zait gainera, nahiz eta titulua izateak beti ez duen ziurtatzen maila on bat izatea ahozko komunikazioan. Ez dut inoiz EGA azterketarik egin, bigarren perfilekoa bai ordea, eta ez zait bereziki zaila iruditu.

Testua: Alazne Aiestaran

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebis-
tak, bideoak, musika,
aparatoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

*Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak*



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25



Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUEKILORE

HAURRENTZAKO ZINEA

Hilak 5:
'Basoko arima'.

Hilak 12:
'Carlitos y el campo de sueños'

Hilak 19:
'Madagascar 2'.

Hilak 26:
'Viaje al centro de la Tierra'.
17:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera dohainik.

ZINE-KLUBA

Hilak 16:
'Quemar después de leer'.

Hilak 23:
'Los limoneros'.

Hilak 30:
'Camino'.
21:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

ANTZERKIA

Hilak 24:
'Hot Burrito', Pez en raya taldearen eskutik.
22:15ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

MUSIKA

Hilak 1:
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Lobiano Kultur Gunea. Sarrera dohainik.

Hilak 4 eta 25:
Ermuan Kantuan. 12:30ean. Orbe Kardinalaren plazatik.

Hilak 4:
Kalejira: Orkresta taldea (Korrika Kulturala). 19:00etan. Orbe Kardinalaren plazatik.

Hilak 4:
Blues Kontzertua: José Luis Pardo & The Mojo Workers. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

Hilak 25:
Erromeria. (Euskal jaia). 19:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 28:
Gitarra kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:30ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera dohainik.

DANTZA

Hilak 4:
Euskal Dantzak: Jainaga eta Narbaizaren taldea (Txindurri eguna). 18:30ean. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 4:
Larraidantza (Txindurri eguna). 20:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 5:
Euskal dantzak: Txindurri taldea (Txindurri eguna). 12:30ean. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 26:
Euskal dantzak: Euskal Jaia. Egun osoan zehar. Orbe Kardinalaren plazan.

ERAKUSKETA

Hilaren 20tik maiatzaren 3ra:
Marrazkiak: Antonio J. Hernández.

Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara.
Asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

HAURRENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 3:
Korrika txikia. 15:00etan.

Hilak 3:
Haurrentzako berbena: Xilipurdi taldea (Korrika kulturala). 16:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 4:
Umeentzako jolasak (Korrika kulturala) 11:30ean. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 4:
Haurrentzako ipuinkontaketa: Ixabel Agirresaroberen eskutik. 17:30ean. Udal Liburutegian.

BESTELAKOAK

Hilak 2:
Film laburrak. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 4:
Korrika. 22:03etan.

Patxi Lopez



ez zaitetz atzean gelditu, zatoz guregana!

Diputazio, 15 - behea 943 17 01 88

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Trache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75



KAFETEGIA XAGUA
Zubiaurre kalea, 23 behea

mari asun



LORADENDA
Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379